

DEITUTAKO PLAZAREN DESKRIBAPEN-FITXA

LANPOSTUA: Berrikuntza eragilea

KONTRATU-MOTA: Lan-kontratu arrunta

PLAZA-KOPURUA: 2

KONTRATAZIOAREN IRAUPENA: Mugagabea (sei hilabeteko probaldiarekin)

URTEKO ORDAINSARIA: 41.972,23 euro gordin.

EGINKIZUN NAGUSIA: Zuzendariari laguntzea laborategiaren helburua lortzera bideratutako berrikuntza- eta eraldaketa-politikak diseinatzen, eta haiek gauzatzeko ardura desberdinak hartzea, beti ere talde lanean eta Zuzendariaren esanetara.

Laborategiaren funtzionamenduak hiru atal izango ditu:

1. Entzun eta sentitu

Galdera berriak identifikatu eta etorkizuneko eszenatoki berriak arakatu

- Ikerketak
- Behatoki digitala
- Entzute partehartzailea

2. Esperimentatu eta saretu

Prozesu eta ekintza berritzaileak abian jarri

- Programa esperimentalak
- Bidelaguntza
- Komunitate ekintzak eta sareak
- Trebakuntza berriak


3. Partekatu eta ebaluatu

Narratiba eta komunikazio formato berriak eta eraldaketa sozialerako ekarpena egin

- Sozializaioa
- Transferentzia
- Ebaluaketa

Funtzionamendu hau prozesu moduan honela irudikatu daiteke:

BADALAB PROZESUA



Berrikuntza eragileak gaitasuna behar du prozesu horretan landu daitezkeen erronka edo egitasmoen ardura osoa hartzeko, hasieratik bukatu arteko fase guztietan. Zuzendariaren gidaritzapean eta lantaldearen laguntzaz, bera izango da dagozkion egitasmoen arduraduna eta bidelagunen erreferentzia, azken emaitza erdietsi arte.

HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK:

Hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte, eta lan-kontratua formalizatu arte eutsi beharko diete, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan jasotzen den bezala:

1. Nazionalitatea:

- Europar Batasuneko edozein estatu kideetako herritarra izatea.
- Nazionalitatea edozein dela ere, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontide izatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute beren ondorengoek eta ezkontidearen

- ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak eta mendekoak badira.
- Betekizun hau betetzen dute Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.
 - Halaber, aurreko lerrokadetan jasota ez dauden baina legezko bizilekua Espainian duten atzeritarrek.
2. Adina: hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
 3. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
 4. Diziplina-espeditate bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik, administrazio horiei lotutako edo haien mendeko organismo publikotatik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organismoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial irmoaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.
 5. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko dionik.
 6. Unibertsitate-titulua izatea.
 7. Lan-arlo guztietan (ahoz zein idatziz) euskaraz jarduteko gaitasun osoa izatea, eta gaztelania eta ingelesa behar bezala menderatzea. Egiaztapen-titulua kontuan hartuko dira, baina performazio bidezko ebaluazioa ere egingo da. Euskaraz gutxienez C1 maila erakutsi beharko da; gaztelaniaz eta ingelesez, gutxienez B2 maila.

BALORATUKO DIREN EZAUGARRIAK:

Hiru motako ezaugarriak baloratuko zaizkio hautagaiari:

1. Esperientzia

- Bizi-ibilbidean nahiz lanekoan sorkuntza, berrikuntza edota eraldaketa bilatzen zuten ekimenekin izandako kontaktua.
- Esparru digitaleko teknologian nahiz humanitateetan egindako ibilbidea.
- Bi esparru hauetako gutxienez batean egindako ibilbidea:
 - Hizkuntza esparruan, euskararen biziberritze prozesua ezagutzea eta hizkuntza gutxitu nahiz txikien berri izatea.
 - Komunikazio esparruan, informazioa lortzeko, lantzeko eta hedatzeko estrategiak garatzen izan duen eskarmentua.

- Betekizunetan beharrezkoa den unibertsitate-titulutik harago, beste titulazio, profesionaltasun-ziurtagiri, graduondoko ikasketak, master edota hobekuntza-ikastaroak ere baloratuko dira.

2. **Gaitasunak** (atxikita proposamenen teknikoaren xehetasunak)

Hautaketa prozesuan zehazki hauek neurtuko dira:

- Talde-lana garatzeko eta pertsonen artean sareak sortzeko gaitasuna
- Aldaketara egokitzeko gaitasuna
- Sormena eta berrikuntza
- Adimen emozionala
- Ekimena eta proaktibitatea
- Informazioaren teknologiak eta sare sozialak erabiltzeko gaitasuna.

3. **Nortasuna** (atxikita proposamen teknikoaren xehetasunak)

Ezaugarri hauek neurtuko dira:

- Esperientzia berrietara irekiera (ausardia eta irudimena)
- Erantzukizuna (arrakasta beharra, kautela, autodiziplina)
- Estrobertsioa (lankidetzak, apaltasuna, intransigentzia)

HAUTAKETA PROZESUA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Hautaketa ieTeam enpresa espezializatuak egingo du, eta ondoko taularen arabera barematuko dira hautagaiak:

BERRIKUNTZA ERAGILEEN HAUTAKETARAKO BAREMAZIOA

BALIOESPENA EGITEKO BAREMOA		
Ezagutzak eta esperientzia	Baremoa	
Oinarritzakoa	Unibertsitate titulua izatea	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ + puntuaketa. Puntuaketa: <ul style="list-style-type: none"> - Ez dauka titulurik: kanporatua. - Badauka: bilatzen diren bi espezialitateekin gertutasuna duten tituluak baloratuko dira 1-10 puntu bitartean, gehien humanitate zientziak, soziologia, filologia, komunikazio zientziak, kazetaritza, informatika,... - 1-5: gradua soilik edo diplomatura. - 5-10: lizentziatura, masterra, kurtsoak, erdi edo goi mailako zikloak, etab.
	Euskaraz gutxienez C1 maila izatea	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ
	Gaztelaniaz eta ingelesez gutxienez B2 maila	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ
	Bi esparru hauekako gutxienez batean egindako ibilbidea: hizkuntza esparruan edota komunikazio esparruan	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ + puntuaketa: Puntuaketa: <ul style="list-style-type: none"> - Ez dauka ibilbiderik: kanporatua. - 1-10 puntu bitartean baloratuko da egindako ibilbidearen iraupena eta kalitatea: <ul style="list-style-type: none"> - 1-5: ibilbide laburra edota apala - 5-10: ibilbide luzea edota trinkoa
Esperientzia	Bizi-ibilbidean nahiz lanekoan sorkuntza, berrikuntza edota eraldaketa bilatzen zuten ekimenekin izandako kontaktua.	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ + puntuaketa: Puntuaketa: <ul style="list-style-type: none"> - Ez du kontakturik izan: kanporatua. - Kontaktua txikia ala handia izan duen baloratuko da 1-5 puntu bitartean: <ul style="list-style-type: none"> - 1-3: kontaktu aldizkakoa edota ez organikoa - 3-5: kontaktu jarraia eta organikoa
	Esparru digitaleko teknologian nahiz humanitateetan egindako ibilbidea	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuaketa: <ul style="list-style-type: none"> - 1-5 puntu bitartean baloratuko da egindako ibilbidearen iraupena eta kalitatea: <ul style="list-style-type: none"> - 1-3: ibilbide laburra edota apala - 3-5: ibilbide luzea edota trinkoa
Gaitasunak eta nortasuna	Adimen artifizialeko tresna bidez, analisia egingo da hautagaien gaitasun eta nortasun aldagaiak ebaluatzeko	<ul style="list-style-type: none"> • BAI/EZ + puntuaketa: Aldagaien zerrendatik % 80an ez bada 50eko maila gainditzen, kanporatua. Gainditzen dutenen artean 1-5 puntu banatuko dira 100eko emaitzara hurbildu ahala.
	Ariketa edo erronka froga bat, Badalaben jarduera kontutan hartuta	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuaketa: 1-5 puntu bitartean erantzunaren kalitatea (bereziki berritasuna) neurtuta
	Elkarrizketa teknikoa, aurreko bi frogetan oinarrituta	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuaketa: 1-10 puntu bitartean
IE-TEAMek eginiko balioespena		50 puntu
Badalabeko zuzendaritza		10 puntu
GUZTIRA		60 puntu

Prozesuaren ondorioa **hautagaien hurrenkera izango da, eskatutako profilarrekiko bakoitzak duen egokitasunaren arabera**. Eta hautaketa enpresak Badalab-i proposatuko dizkio egokitasunik altueneko gutxienez bi hautagai hizkuntza esparruan esperientzia dutenak eta beste bi komunikazio esparruan esperientzia dutenak.

Hautaketa horren gainean batzorde betearazleak izendatutako epaimahai batek landuko du Lehendakariak Gobernu batzordeari luzatuko dion kontratazio proposamena.

LANPOSTUAREN KOKAPENA. Gipuzkoan, Errenterian.

BERRIKUNTZA ERAGILEAK HAUTATZEKO OINARRIAK – PROPOSAMEN TEKNIKOA

✓ ZEHARKAKO GAITASUNAK

1. Talde-lana
2. Aldaketara egokitzea
3. Sormena eta berrikuntza
4. Adimen emozionala
5. Ekimena eta proaktibitatea

✓ NORTASUN EZAUGARRIAK

- I. Aldaketarako egokitzea: Pertsona baten jarduera esperimendatzeko.
 1. Ausardia: Jarduera berriak probatzeko eta gauza desberdinak esperimendatzeko prest egotea.
 2. Irudimena: Mundu erreala sinpleegi eta arruntegi ikusten dute. Fantasia ez dute ihesbide gisa erabiltzen, baizik eta barne-mundu aberatsago eta interesgarriago bat beren kabuz sortzeko modu gisa.
- II. Erantzukizuna: Pertsona batek modu antolatuan edo zorrotzean jokatzeko duen joera.
 1. Arrakastaren beharra: Bikaintasuna lortzen ahalegintzen dira. Arrakastatsutzat jotzeko duten nahiak bide onean mantentzea eragiten du, helburuak lortzeko ahalegina egiten duten heinean.
 2. Kautela: Esku hartu aurretik, arretaz pentsatzeko prest daude.
 3. Autodiziplina: Autodiziplina dute, edo "borondate-indarra", zeregin zailtan edo desatseginetan irauteko, hauek osatu arte.
- III. Adeitasuna: Pertsona bat besteekiko errukiorra eta laguntzailea izateko duen joera da.
 1. Lankidetzeta: Ez zaie konfrontazioa gustatzen. Oso prest daude norberaren beharrak konprometitzeko edo ukatzeko, besteekin ondo moldatzeko helburuarekin.
 2. Apaltasuna: Xumeak eta apalak dira. Hala ere, ez zaie nahitaez beren buruarekiko konfiantzarik falta, ezta autoestimurik ere.
 3. Intransigentzia: Ez dute aitzakiarik edo manipulaziorik behar besteekin tratatzean, eta, beraz, xaloak eta zintzoak dira.

✓ BEHARREN ANALISIA

1. Erronka: Lorpenak lortzeko, arrakasta izateko eta erronkak onartzeko beharra sentitzea.
2. Jakin-mina: Deskubritzeko, ikertzeko eta hazteko gogoia sentitzea.
3. Harmonia: Besteak estimatzea eta besteen ikuspuntuak eta sentimenduak kontuan hartzea.
4. Autoadierazpena: Beren identitatea aurkitzea eta balioztatzea ingurunearekin.
5. Egonkortasuna: Baliokidetasuna bilatzen dute mundu fisikoan. Sentikortasuna, saiatua eta frogatua lehenesten dute.

✓ BALIOEN ANALISIA

1. Aldaketarako irekiera: Ekintza, pentsamendua eta sentimendu independenteak nabarmentzea eta baita esperientzia berrietarako aurretiko jarrera ere.
2. Hobekuntza pertsonala: Beren buruarentzako arrakasta pertsonala izatea.
3. Autotraszendentzia: Besteen ongizateaz eta interesez arduratzea.

✓ GAITASUN TEKNIKOAK

Baloratuko da:

1. Informazioaren teknologiak ezagutzea (TIC, plataformak, berrikuntza joerak...).
2. Pertsonen arteko sareak antolatze gaitasuna.
3. Sare sozialak erabiltzeko gaitasuna, behaketarako eta sozializatorako

Eta bi multzo hauetako batean EDO bestean sartzen diren gaitasunak:

- A multzoa
 1. Euskara biziberritzeko prozesuaren ezagutza (ikerketak, prospektiba, eragileak, proiektuak).
 2. Hizkuntza gutxituen eta txikien egoeraren berri izatea.
- B multzoa
 1. Komunikazioaren estrategia pentsatzeko eta gauatzeko gaitasuna.
 2. Sozializatorako narratiba eta komunikazio-formatu berriak sortzeko gaitasuna.

Finkatutako alderdiak, osagarriak dira haien artean, prozesu berean eta elkarlanean egon behar diren pertsonak direnez, ez da beharrezkoa izango alderdi guztiak betetzea.